

PAK proiektua: askotariko hezkuntza-premiak dituzten ikasleak gelan bertan artatzeko programa didaktiko inklusiboa. Ikerketa ebaluatzailea. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa (Erreferetzia: SEJ2006-01495/EDUC)

**TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO IK/KI
PROGRAMA («Ikasteko
kooperatu/Kooperatzen ikasi»)
4. aurkezpena: Talde dinamikak (A eremua)**

Lantaldea:

**Pere Pujolàs eta José Ramón Lago (koord.), Mila Naranjo, Olga Pedragosa,
Gemma Riera, Jesús Soldevila, Glòria Olmos, Alba Torner eta Carles
Rodrigo**

IK/KI programa: Gelako ikasketa modu kooperatiboan egituratzeko esku-hartze eremuak

IK/KI programa («Ikasteko kooperatu / Kooperatzen ikasi»):
Taldean ikasten irakasteko jarduera multzoa, hiru esku-hartze eremu osagarri jorratzen dituena:

A esku-hartze eremua:

Ikasgelako taldea kohesionatzera, taldean lan egiteko prestatzera, kooperaziorako jarrera hartzera eta pixkanaka **ikasketa komunitate txiki bat** bilakatzera bideraturiko jarduerak.

B esku-hartze eremua:

Taldeko lana irakasteko eta ikasteko erabiltzera bideraturiko jarduerak (taldeko lana **baliabide** gisa)

C esku-hartze eremua:


Taldean lan egiten irakastera bideraturiko jarduerak (taldeko lana **eduki** gisa)

A esku-hartze eremua: Taldearen kohesioa

Ikasle-talde handia, talde txikiak, bikoteak...
Noizbehinkakoak edo egonkorrak

Noizbehinkakoak edo egonkorrak,
homogeneoak edo heterogeneoak

Lankidetzak egitura sinpleak
Lankidetzak egitura konplexuak (lankidetzak teknikak)



Gela osoko dinamikak edo taldeetakoak kohesiorako, ezagutzeko jolasak, kooperazioa, distentsioa eta gatazkek konpontzea...

Talde egonkorrak heterogeneoak
(Oinarri taldeak)

Taldeak antolatzeko baliabideak
Taldekoko lana taldean planifikatzea eta gaitasun sozialak irakastea

A esku-hartze eremua: Taldearen kohesioa

A EREMUA: Taldearen kohesioa



Aldez aurreko baldintza da, beharrezkoa, baina ez nahikoa, ikasgelan ikasketa kooperatiboa ezarri ahal izateko:

Taldeak horrela lan egiteko gero eta joera handiagoa izan dezan ahalbidetuko duten baldintza onenak sortzen joatea:

- Taldean ikastea
- Elkarri ikasten laguntzea

A esku-hartze eremua: Taldearen kohesioa

Non, noiz eta nola landu taldearen kohesioa

- Tutoretza orduak
- Ikasgelako batzarra
- Hasierako agurra, goizean; arratsaldeko agurra
- Taldeko ospakizunak...

Taldean lan egitearen garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko jarduerak

Talde osoko dinamikak:

elkar ezagutzea bultzatzen dutenak,

ikasleen arteko harremanak hobetzeko,

talde edo ikasgela osoari eragiten dioten alderdiei buruzko erabaki adostuak hartzeko,

eta abar.

Honako dokumentu hau aurkeztea:

Taldearen kohesioa aztertzeko jarraibidea



A esku-hartze eremua: Taldearen kohesioa

Taldearen kohesio mailaren azterketaren dimentsioak

Ikasgelako taldearen ahuleziak:

- 1 Ikasgelako ikasle guztien parte-hartzea eta erabakiak adostuta hartzea
- 2 Elkar ezagutzea eta harreman positiboak eta laguntasunekoak taldea osatzen duten ikasleen artean
- 3 Elkar ezagutzea eta harreman positiboak eta laguntasunekoak ikasle arrunten eta urritasunen bat dutenen edo jatorri kultural ezberdina dutenen artean
- 4 Taldean lan egiteko gogoia eta talde-lana egungo gizartearentzat garrantzitsutzat eta lan indibiduala baino eraginkorragotzat jotzea
- 5 Elkartasunerako, elkarri laguntzeko, desberdintasunengatiko errespeturako eta elkarbizitzarako gogoia

Honako hau aplikatzeko
konpromisoa hartu dugu...

A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.1 Erabakiak hartzerakoan eztabaida eta adostasuna bultzatzeko taldeko dinamikak...

1. Talde nominala

1.2 Elkarren arteko harremana, elkar ezagutzea eta taldearen barruan distentsioa bultzatzeko taldeko dinamikak

1. Pilota

2. Maleta

3. Elkarrizketa

4. Jomuga eta diana

1.3 Ikasle arruntek urritasuna duen kideren baten inklusioan parte har dezaten eta elkar ezagut dezaten bultzatzeko estrategiak eta dinamikak.

1. Laguntza Batzordea

1.4 Taldeko lanaren garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko jarduerak

1. Nire lanbide gogokoenak

2. Manuelen taldea

1.5 Ikasleak modu kooperatiboan lan egiteko prestatzeko eta sentsibilizatze jarduerak

1. Koloretako mundua

A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.1 Erabakiak hartzerakoan eztabaida eta adostasuna bultzatzeko taldeko dinamikak...

TALDE NOMINALA

- Taldeka, ikasleek ikasgela osoaren artean eztabaidatzen ari diren gaiaren inguruko proposamenak egingo dituzte (adibidez: taldearen funtzionamendu arauak)
- Talde bakoitzak arau bat proposatuko du eta arbelean idatziko dute. Arau bat beste talde batek aipatu badu jada, hurrengora igaroko gara. Egin behar adina txanda, talde guztiek pentsatutako arau guztiak esan arte.
- Taldeka, «puntuatu» egingo dute 1 punturekin garrantzitsuena iruditzen zaien araua; 2 punturekin jarraian datorrena eta 3 punturekin hurrengoa, eta abar.
- Talde bakoitzak arau bakoitzari emandako puntuak batuko ditugu.
- Horrela, arauak garrantzi handiena duenetik txikiena duenera ordenatu ahalko ditugu, taldeen balorazioei jarraiki.



A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.2 Elkarren arteko harremana, elkar ezagutzea eta taldearen barruan distentsioa bultzatzeko taldeko dinamikak

PILOTA

Lehenengo eskola egunetan ikasleen izena ikasteko balio du:

- Lurrean zirkulu bat marraztuko dugu eta ikasleak zirkuluaren inguruan jarriko dira.
- Eskuetan pilota bat duen ikasle bat zirkuluaren erdian jarriko da eta bere izena esango du, eta jarraian ikaskide baten izena esan eta hari botako dio pilota: «Juan izena dut eta Anari pasatuko diot pilota». Jarraian lurrean eseriko da, zirkuluaren barruan.
- Anak gauza bera egingo du eta beste ikaskide baten izena esango du; ondoren zirkuluaren barruan eseriko da. Eta horrela jarraituko dugu harik eta ikasle guztiak zirkuluaren barruan eserita dauden arte.
- Guztiak eserita egon arte igarotako denbora kronometratu dezakegu: zenbat eta denbora gutxiago eman, orduan eta gehiago ezagutzen dute elkar...

A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.2 Elkarren arteko harremana, elkar ezagutzea eta taldearen barruan distentsioa bultzatzeko taldeko dinamikak

MALETA

- Irakasleak, egun batean, maleta bat eramango du ikasgelara eta, ikasle guztien aurrean, hiru objektu aterako ditu bertatik, berarentzat garrantzitsuak direnak: mendiko bota pare bat, txangozalea delako; bereziki maite duen eleberri bat, eta abar.
- Noizean behin, gauza bera egitera gonbidatuko du ikasle bat: ikasleak berarentzat garrantzi berezia duten hiru objektu eramango ditu. Beste ikasleek objektuei buruzko galderak egin diezazkiokete...
- Horrela, egun batean ala bestean, haur guztiek beren objekturik gogokoenekin beteriko maleta eramaten amaituko dute...



A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.2 Elkarren arteko harremana, elkar ezagutzea eta taldearen barruan distentsioa bultzatzeko taldeko dinamikak

ELKARRIZKETA

- Irakasleak ikasgelako ikasleak bikotetan banatuko ditu, ausaz.
- Bikoteko kide bakoitzak elkarrizketa egingo dio besteari eta aldez aurretik adostutako galderak erantzungo dituzte, beren gaitasunei, zaletasunei eta abarrei buruz.
- Elkarrizketaren ondoren, bakoitzak bere bikotekidearen aurkezpen labur bat idatziko du eta gero ikasgela osoaren aurrean irakurriko du.
- Lehenago, ordea, idazlantxoak bikotekideari erakutsiko dio, hark, egokitzen joz gero, aldaketaren bat egin dezan.




A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.2 Elkarren arteko harremana, elkar ezagutzea eta taldearen barruan distentsioa bultzatzeko taldeko dinamikak

JOMUGA ETA DIANA

- Ikasgela bateko ikasleak oinarri taldeetan daude banatuta.
 - Kartoi mehe batean bakoitzak bere izaerari buruz azaldu nahi dituen ezaugarrien adina zirkulu zentrokide marraztuko ditu (ezaugarriak alde zehaztuko dira) eta taldeak dituen kide kopuruaren adina zatitan banatuko dira (normalean lau).
 - Zirkuluaren kuadrante bakoitzean, barruko zirkulutik hasita, beren izaerari buruzko galdera baten erantzuna idatziko dute (nola izena duzu? zer da gehien gustatzen zaizuna eta zer gutxien?)
- Ondoren, erantzunak aztertuko dituzte, zertan egiten duten bat eta zertan ez begiratuko dute, eta, hortik abiatuta, beren oinarri taldeari zein izen jarriko dioten erabakiko dute.



A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.3 Ikasle arruntek urritasuna duen kideren baten inklusioan parte har dezaten eta elkar ezagut dezaten bultzatzeko estrategiak eta dinamikak.

LAGUNTZA BATZORDEA

- Ikasgelan zenbait ikaslek osaturiko batzorde bat sortuko da. Ikasleak txandaka aldatzen joango dira guzti guztiak uneren batean ala bestean batzordeko kide izan arte.
- Batzorde hori tutorearekin bilduko da tarteka (adibidez: hilean behin), edo gertatutako zerbait dela-eta komenigarria den guztietan.
- Batzordearen zeregina ikasgela gero eta inklusiboagoa izan dadin zer egin daitekeen pentsatzea da (jarduerak, laguntzak antolatzea, «lankidetzak kontratuak», eta abar); hau da, ikasle guztiak barnean hartzeko eta mundu guztia gustura egon dadin eta baztertua senti ez dadin.



A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.4 Taldeko lanaren garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko jarduerak

NIRE LANBIDERIK GOGOKOENAK

- Bakoitzak hiru lanbide pentsatuko ditu, handitan izatea gehien gustatuko litzaizkiokeenak. Ondoren, besteen aurrean azalduko dituzte, bakoitzak zein lanbide aztertuko duen zehazteko. Norbaitek lehenago aukeratzten badu beste batek aztertu nahi zuena, bigarren lekuan pentsatutakoa aztertuko du hark... Ezin da lanbiderik errepikatu: helburua, guztion artean, ahalik eta lanbide gehien aztertzea da.
- Jarraian, lau edo bost ikasleko taldeetan bilduko dira eta banaka aztertuko dituzte bakoitzari egokitutako lanbideak eta guztien artean honako galdera hauei erantzungo diete: *Zertan datza lanbide hori? Egin behar dutena egiteko lanbide bereko edo beste lanbide bateko pertsonak behar al dituzte? Lanbide hori dutenei taldean lan egitea komeni al zaie? Norbaitek erakutsi al dizue taldean lan egiten?...*
- Azkenik, guztien artean azalduko dituzte azterturiko lanbideak, lanbide guztietan edo gehienetan taldean lan egiteak duen garrantzia egiaztatzeke, baita taldean lan egiten ikasteak duen garrantzia egiaztatzeke ere...

A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.4 Taldeko lanaren garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko jarduerak

MANUELEN TALDEA

- Manuelen kasutik abiatuta (mutil horrek ez du gustuko eskolan taldean lan egitea, kasuan azalduko ditugun zenbait arrazoi direla-eta), ikasle bakoitzari eskatuko diogu, bakarka, taldean lan egiteak dituen abantailatan pentsatzeko, Manuelen kasua gorabehera.
- Gero lau edo bost kideko taldeak osatuko dituzte, guztien artean azalduko dituzte bakoitzak aurkitutako abantailak eta hasierako zerrendari beste ikaskideren batek esan duen eta beraiek aintzat hartu ez zuten abantailaren bat erantsiko diote.
- Ondoren, talde guztiek denen artean aurkitu dituzten abantailak azalduko dizkiote ikasgela osoari eta, oraindik, beren zerrendan beste talde batek aurkitu duen eta bere taldeari bururatu ez zitzaion abantailaren bat eransteko aukera izango dute.
- Lehenengo zerrenda hirugarrenarekin alderatzen badute, guztiak batera bakarka aurkitu zituzten abantailak baino gehiago aurkitzeko gai izan direla egiaztatuko dute. Eta lehenago idatzi ez bazuten, azken abantaila hau erantsi dezakete: taldeko lanak bakarkakoak baino ideia gehiago sortzen ditu...

A eremuko taldearen jarduera eta dinamika batzuk

1.5 Ikasleak modu kooperatiboan lan egiteko prestatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak

KOLORETAKO MUNDUA

- Parte-hartzaile bakoitza paretari bizkarra emanda jarriko da, begiak itxiko ditu eta isilik egongo da. Bakoitzari koloretako pegatina bat itsatsiko diogu kopetan, egokitu zaion kolorea ikusteko aukerarik izan ez dezan. Parte-hartzaileetako bati ez diogu pegatinarik jarriko edo guztiz ezberdina den bat jarriko diogu, berak bakarrik daramana.
- Jarraian, begiak irekitzeko esango diegu eta taldeetan jartzeko bi minutu dituztela jakinaraziko diegu, ezer esan gabe.
- Tutoreak edo parte-hartzaileetako batek nola egiten duten eta pegatina desberdina daramanarekin zer gertatzen den behatuko du...
- Ondoren, gertatutakoari buruz hitz egingo dute, nola egin duten, nola sentitu diren...

